

EUSKARAZKO INTERPRETAZIOARI BURUZKO OHARRAK

Erakundearen bileretan edota edozein motatako biltzar eta kongresutan, komenigarri litzateke honako gomendioak izatea kontuan, interpretazioa egin behar denerako.

1. Biltzarra diseinatu eta antolatzean:

- Hizlariari galdetu zein hizkuntzatan egingo duten beren mintzaldia, aukera eman ez euskaraz egiteko, aldi bereko itzulpena egongo baita.
- Egitarauetan, argi adierazi zein hizkuntzatan emango den mintzaldi bakoitza, eta argi utzi aldi bereko itzulpena egongo dela.
- Mintzaldia euskaraz emango duten hizlariari, idatzizko testua erabiliko badute, egun batzuk aurretiaz antolatzaileei bidaltzeko eskatu, interpreteek lantzeko aukera izan dezaten. Erabiliko den beste edozein testu (hizlarien aurkezpenak, kurrikulumak...) aurretiaz pasatu itzultzaileei.
- Ahal bada, interpreteak eta euskaraz arituko diren hizlariak harremanetan jartzeko bideak ipini, kontsultak errazteko.
- Entzuleen hizkuntza ezaugarriak kontuan eduki, biltzarraren lan hizkuntza nagusia erabakitzeko orduan: komeniko litzateke jakitea izena ematen duten entzuleetatik zenbatak dakiten euskaraz, eta horren arabera nagusitasuna eman hizkuntza bati edo besteari.
- Moderadore edo mahaiburua euskalduna izango bada, euskara erabiltzera eta erabilaraztera animatu, hizkuntz eragile ere izan dadin.
- Hizlari euskaldunen "hizkuntza kalitatea", halere, zaindu, euskara traketsen egindako mintzaldiak ulergaitzak izan baitaitezke.
- TOKIA: interpreteek beti izan dezatela mahaia eta proiektzioak ONDO ikusteko aukera.

2. Biltzarra hasterakoan:

- Antolatzaileek pertsona bat izendatuko dute, biltzarrean zehar interpreteekin harremanak izateko.
- Proiektzio batez edo kartel batez (ahoz baino hobeto), aretoan bertan adierazi hizkuntza bakoitzaren itzulpen kanala zein den.
- Hasiera-hasieratik jakinarazi itzulpenerako entzungailuak har daitezkeela, mintzaldiak hasi baino lehen.
- Aukera utzi itzultzaileei hizlari euskaldunekin egoteko, mintzaldia hasi baino lehen.
- Ipini entzungailuak hizlarien mahaietan, itzulpena beharko badute, baita erdaldunak direnean ere, galderak euskaraz egin ahal daitezken.

3. Mahaiburuaren egitekoak:

- Euskara erabiliko badu, ez dezala euskaraz esandakoa erdaraz ere errepikatu.
- Entzuleak eta hizlariak animatu euskara ere erabiltzera, itzulpena dagoenez gero.
- Interpretazioa egonez gero, ez egin autoitzulpena, hots: lehendabizi euskaraz hitz egin eta gero gauza berbera errepikatu erdaraz.
- Ez hizkuntzak txandakatu (zati bat euskaraz, beste bat erdaraz, hainbat aldiz)
- Testu berriren bat banatzen bada bilera hasi eta gero, beti pasatu itzultzaileei ere, irakurri aurretik.
- Hizlaria testu idatzia irakurtzen ari bada, eta denboraz gaizki badabil, ez utzi azkarrago irakurtzen: esan laburrago egin dezala, ez azkarrago. Itzulpenaren kalitatearen kalterako izan liteke, bestela.
- Ziurtatu mahaiko hizlariak badutela itzulpenerako entzungailua, galderen txandarako, beharra badute ere. Egitarauan adierazitako denbora zorrotz errespetatu eta errespetarazi, inor ez dadin behartua egon bere mintzaldia abiada osoan ematera, entzuleen eta itzulpenaren kalterako.
- Hizlariak mikrofonoa piztuta dutela hitz egin behar dute, itzultzaileak mintzaldiaren haria gal ez dezan.
- Komeni da bileran eskuko telefonoak itzalita izatea, sarritan interferentzia egiten baiotote soinu eta itzulpen sistemari.

Donostian, 2003ko irailean